



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUNAREN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko
Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta
Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Sostenibilidad
Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y
Economía Circular

Ebazpena, 2024ko urriaren 17koa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Elorrioko udal-mugarteko Pulla-Azkarreta S-7.1 sektorearen plan partzialaren ingurumen-dokumentua.

AURREKARIAK

2024ko abuztuaren 7an, Elorrioko Udalak eskabidea aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, Elorrioko udal-mugarteko Pulla-Azkarreta S-7.1 sektorearen plan partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin zezan, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak V. eranskinean dakarren formularioa. Aipatu dekretuak planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozedura arautzen du.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea gauzatu du (2024ko irailaren 13an hasita), halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, Elorrioko Udalari izapidearen hasieraren berri eman zitzaion.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitzen jotzen zituen oharrek egin ahal izateko.

Txostenak jasotzeko indarrean dagoen legerian ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatze aldera.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei, bai eta haien aldaketei eta berrikuspenei ere (II.A eranskinean zerrendatu dira), legezko edo erregelamenduzko xedapen batek edota Gobernu Kontseiluaren erabaki batek beharturik prestatu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.



Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu irismen-dokumentua hasteko eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Lege horri aurka egiten ez dioten alderdietan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Azkenik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentzia-dokumentuaren edukiaren ingurukoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren ingurukoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutako guztiari jarraikiz, espedientean jasotako txostenak aztertuta eta aplikatu beharreko legeak eta arauak ikusita (hau da, abenduaren 9ko 10/2021 Lege Orokorra, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa; abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak); bai eta aplikatzeko den gainerako araudia ere, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Elorrio udal-mugarteko Pulla-Azkarreta S-7.1 sektorearen plan partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egitea (aurrerantzean, Plana), ingurumen-ondoreetarako bakarrik, eta honako baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

S-7.1 sektorearen antolamendu xehatua egitea da plan partzial honen xedea. Zehazki, berrikuntzako industria-erabilera (II-a, 2) ezartzeko jarraibideak ezartzea, betiere HAPOak zehaztutako sistema orokor publikoak (ibaiak, bideak, etab.) errespetatuz eta bertan dauden ortuen azpierreku pribatuak errespetatuz (erabilera bera mantenduz birbanatuko dira).

Sektorearen eremua lurzoru urbanizagarri sektorizatuan dago, hiri-aglomerazioaren hego-ekialdeko muturrean, eta landa-lursailaz osatuta dago: ortuak, lugorriak, bideak eta ortuetako txabolak. Elorriko HAPOak industria- eta berrikuntza-eremu gisa kalifikatzen du.

Sektoreak 105.630 m²-ko azalera du, sistema orokorrak barne hartuta. Neurri horien barruan, 63.404 m² SPRILUR erakundearenak dira (% 60).

Eremuak «I-2. Berrikuntzako Industria» du izena, eta ezaugarri hauek ditu: II-a motako 2. kategoriako ekoizpen-jardueren erabilera hartzen ditu batez ere, belaunaldi berria deituriko industriara bideratuak, balio erantsi handiko ondasunak ekoizteko bokazioarekin (adibidez, doitasunezkoak, berritzaileak, elektronikoak, laborategiak...); garbiak dira edo gutxi kutsatzen dute, zarata gutxi sortzen dute (edo batere ez), eta, oro har,

ingurune ez-erasokorra eta kalitatezko giroa behar dute, batik bat ondo diseinatutako eta gauzatutako urbanizazio batean oinarrituta.

Proposatutako antolamenduak, hainbat azpieremu publiko definitzeaz gain —bide- eta ibai-sistema orokorrak; espazio libreen tokiko sistemen sarea; ekipamendu publikoaren tokiko sistema eta azpiegiturekin lotutako tokiko sistemak—, honako antolamendu-irizpide hauek ezartzen ditu, laburbilduz:

- Egituraren eta espazioaren hierarkia bat, berdeguneak eta ortuak erabiliz ekoizpen-jarduerak bizitegi-eraikinetatik bereizteko.

- Bizitegi-eremuen ertzeekin lotzen ditu espazio kolektiboak eta tokiko ekipamenduak, berriz hornituz eta hiriko bizitza aberatsa eta askotarikoa izango duten mugarriak ezarriz.

- Plan Orokorraren eskema jarraitzen du Ibaiko Sistema Orokorraren kasuan eta Bide Sistema Orokorraren kasuan, eta bide-eraztuna osatzen du hego-ekialdetik, eremuak N-636 errepide nazionalarekin lotura izan dezan BI-3331 errepidearen hiri barruko bidegunearen bidez.

- Ortuei dagokienez, orain arteko erabilera mantentzea da helburu nagusia. Ortu-erabilera izango duten bi lurzati bereizi dira: H1 eta H2. H1 lurzatia lehendik dagoen Errementarikua baserriko ortuari atxikita dago; H2 lurzatia lehendik dauden gainerako ortuei atxikita dago.

- Bi ekipamendu mota planteatzen dira: publikoa eta pribatua.

- Ekipamendu publikoak (P6b lurzatia) P6 lurzatiaren txanga gisa dihardu, eta bertara sartzeko bide nagusia sektorearen iparraldean dago, ortuekin eta etxebizitzekin zuzenean lotuz.

- Ekipamendu pribatua P4 lurzatian dago, eta hego-ekialdetik errematatzen du P5 lurzatia; gainera, lurzatia murriztu egiten da oinplanoan, ipar-ekialdeko eta hego-mendebaldeko fatxaden artean dagoen desnibelaren eta bideen ondorioz.

- Plan Partzialaren antolamenduak zehaztutako eraikinek gutxieneko tarteak mantentzen dituzte Errementarikua baserritik eta etxebizitza-eraikinetatik:

- 40 metro hirugarren sektoreko eraikinen edo zerbitzu- eta zuzkidura-eraikinen kasuan.

- 60 metro ekoizpen edo biltegiarako pabiloien edo eraikinen kasuan.

- Lurzati industrialek hainbat pabiloi motari erantzuten diete, eta orografiara egokitzen dira.

- P2 eta P3 lurzatiaren aurrealdean, hesi akustikorako hainbat konfigurazio egon daitezke, eta konfigurazio horiek berdegune bereziko zerrendak izango duen labore motaren eta sortutako maldarekiko bateragarritasunaren arabera gauzatuko dira.

- Intereseko zuhaitzak kontserbatzea eta Planaren paisaia-integrazio egokia.

- Elorrioko saihezbidearekiko (N-636 errepidea) lotura. Lur-mugimenduek Elorrioko saihezbideari ez eragiteko irtenbideak proposatzen dira.

- Sektoreko espazio libre guztien azalera aldatu da, eta 14.109,86 m² ditu guztira, ez 11.750,98 m².

- P1 eta P2a eta P2b lurzatiak konbinatu dira, formatu handiko industriadako egokia izango den lurzati bat osatzeko helburuarekin. P2c eta P2d lurzatiak konbinatu dira, eta P2 lurzatia osatu da.

- P1 lurzatiaren gehieneko lerrokadurak aldatu dira, ehun urtetik gorako haritzak eta Errementarikua baserriaren ondoko H1 ortua errespetatzeko.

- Azken puntu horrekin lotuta, gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna aldatu ez bada ere, nabarmen aldatu da Berrikuntzako erabileren eta Industria/Hirugarren sektoreko erabileren hirigintza-eraikigarritasuna.

Plan Partzialak proposatutako erabilerak eta hirigintza-eraikigarritasuna

ERABILERA	Erreferentzia	Lurzatiak	Gehieneko hirigintza-eraikigarritasuna
Bereizgarria sestra gainean: Berrikuntzako industria eta beste batzuk	II-a-2	P4, P5, P6a (*)	34.330,69 m ² t
Bereizgarria sestra gainean: ikuntzako industria eta beste batzuk, edo Bateragarria sestra gainean: Industrial / Hirugarren sektorekoa	II-a-2, edo II.a-3 eta 3.b/II.c- 1,2,3,4	P1, P2, P3,	29.311,45 m ² t
Sestra azpian: Sotoko erabilerak	HAPOko arau rokorren arabera	Lurzati guztiei aplikatzekoak	32.000,00 m ² t
Gehieneko hirigintza-ERAIKIGARRITASUNA GUZTIRA		97.000,00 m ² t	

(* Batura bateragarria da P5 eta P6a lurzatietan: $\leq 65.000 \times \% 40 = 26.000 \text{ m}^2$)

Aztertutako alternatibak

Bi alternatiba proposatu dira, 0 alternatibaz gain.

O ALTERNATIBA: HAPOak berrikuntzako industria-eremu gisa kalifikatzen du sektorea —landa-lurrak, ortuak, lugorriak, bideak eta lanabesetarako txabolak, nolabaiteko degradazio-maila dutenak, bideen ertzei eta zoladurei, txabolei eta inguruneari erreparatuta, eta landaredia—, baita sistema orokorrak ere. Plana onartu ondorengo 1. laurtekoan garatzea aurreikusten da, Plan Partzialaren eta Hirigintzako Jarduketa Programaren bidez. Gaur egun, eremu hori batzuei dagokie.

A ALTERNATIBA: Alternatiba hau HAPOak S-7.1. sektorerako jasotzen duen proposamenean oinarritzen da.

- 210.000 m³ lur soberakin mugitzea, HAPOaren antolamenduaren arabera.
- Pabiloi berriek 90 metroko tartea errespetatzen dute etxebizitza kolektiboetara, eta 60 metrokoa Errementarikua baserrira.
- Eraikigarritasuna eremuaren mendebaldeko muturreko bi piezatan metatzen da; 48.276 m²-ko industria-eraikigarritasuna du, eta 65.000 m²-koa guztira.
- Fatxadak 185 metroko luzera du etxebizitza kolektiboen aurrean, eta 18 metroko altuera (2 planta industrial).
- A alternatibak metakrilatozko edo hormigoizko pantaila akustikoak planteatzen ditu egon litekeen eragin akustikoa arintzeko.

- Landareak landatzea proposatzen da.
- Gainera, A alternatibak bi estalki mota planteatzen ditu: estalki berdeak eta estalki metalikoak.

B ALTERNATIBA: A alternatiba abiapuntutzat hartuta (hori da Elorrioko HAPOaren gutxi gorabeherako proposamena), B alternatibak zenbait aldaketa eta egokitzapen proposatzen ditu sektorea paisaia hobeto integratzeko. Alternatibak antolamendu eguneratua defendatzen du.

- 46.000 m³ soberakin kalkulatzeko dira, A alternatiban baino gutxiago.
- Kasu honetan, 60 metroko tartea planteatzen da etxebizitza kolektiboetara eta Errementarikua baserrira. Etxebizitzaren kasuan, tartea 105 metrora igotzen da.
- Alternatiba honetan hau da eraikigarritasuna:
- Industria-eraikigarritasuna: 41.324 m²
- Eraikigarritasuna, guztira: 64.463 m²
- Kasu honetan, fatxadak 105 metroko luzera du etxebizitza kolektiboen aurrean, eta 11 metroko altuera (planta industria bat eta berrikuntza-erabilerako beste bat).
- A alternatibak planteatzen dituen hormigoizko eta metakrilatozko pantailez gain, dunak proposatzen ditu B alternatibak.
- Landarediari dagokionez, bi eremu proposatzen dira.
- Era berean, A alternatibak bezala, B alternatibak ere bi estalki mota planteatzen ditu: berdeak eta metalikoak.
- A eta B alternatiben arteko desberdintasun nagusietako bat da B alternatibak ortuak birkokatzea, antolatzea eta behar bezala antolatzea proposatzen duela, sektorea paisaia integratuz eta ortu-jarduera mantenduz.

Horregatik guztiagatik, B alternatiba da S7.1 Pulla-Azkarreta sektorea antolatzeko aukerarik onena.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2030eko V. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak.

Halaber, kontuan hartu beharko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzetik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiriaren barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, eta, horretarako, irisgarritasuna sustatzea, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren bidez, mugikortasunaren bidez eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua iraunkortasun handiagoz erabiliz eta ahal beste

eginkizuni euts diezaion sustatuz.

- d) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera iraunkorra ere.
- e) Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Saihetsezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta, horretarako, konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.
- g) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratzeta eta lurzoruen artifizializazioa mugatzea.
- h) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatzea eta hobetzea.
- i) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- j) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- k) Hauek sustatzea: energia aurrezte, efizientzia, eta energia berriztagarriak eta kogenerazioa erabiltzea.
- l) Aire garbia bermatzea eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea.
- m) Klima-alaketarekiko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta aldetara egokitzeko neurriak integratuz.
- n) Arrisku naturalak minimizatzea.
- o) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa indartuz, bai eta eragileen nahiz lurzoruen erabiltzaile potentzialen jardura ere.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-eremu garrantzitsuak

Sektorea Pulla eta Aidazu errekek mugatzen dute. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Uholde Arrisku Handiko Eremuetako (UAHE) arrisku- eta uholde-mapen arabera, EAEko barne-arroen eremuan 100 eta 500 urteko itzulerako orbanek zati batean baino ez dute ukitzen HAPOak Pulla erreka ibai-sistema orokorrerako erreserbatutako eremua.

Plan Partzialaren mugetatik kanpo, Zumelegi ibaiaren ertzei dagokienez (eremuaren iparraldean), Batasunaren intereseko lehentasunezko habitata identifikatu dira (92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskina): *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) (91E0*).

S.7.1 sektorearen zati handi batean, belardiak dauden inguruan, lehentasunik ez duten Batasunaren intereseko habitata identifikatu dira: Altitude baxuko sega-belardi elkorak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) (6510).

Ipar-mendebaldeko muturrean baso mistoaren orban bat dago, eta hego-ekialdean, berriz, tamaina handiko haritzak.

Pulla erreka —Plan Partzialaren eremuaren mendebaldetik igarotzen da eta, une jakin batzuetan, mendebaldeko muturrean sartzen da, zati batean lurpean— interes bereziko eremua da bisoi europarrarentzat. Ibaiertzeko landaredia du zati batean.

Zumelegi ibaia bisoi europarraren banaketa-eremua izan daiteke Elorrioren, Plan Partzialeko eremutik kanpo.

Azterlanak ez du jasotzen beste naturagunerik edo natura-intereseko beste eremurik.

Aztertutako sektorean gaur egun nagusi den landaredian belardiak eta ortuak daude. Baso mistoaren orban txiki bat baino ez dago ipar-mendebaldean, eta ondo kontserbatutako ur-bazterreko landaredia Pulla erreka tartean; era berean, tamaina handiko haritzak daude hego-ekialdeko muturrean, sektorearen eremu berdean integratuko direnak.

Era berean, ez dago EAeko korridore ekologikoen sareko eskualdeko edo eskualdez kanpoko korridore ekologikorik, ezta LAGen azpiegitura berde edo urdinik ere, Zumelegi ibaia Planaren eremutik kanpo baitago.

EAeko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Aurreproiektuaren arabera, hiri-paisaia oso egunerokotzat eta balio txikikotzat jotzen da eremu antropogenikoan eta nekazaritza-eremuan, eta belardiak eta labore atlantikoak nagusitzen dira ibai-eremuan.

Azterketa-eremuan sartuta dauden baina Planaren eremutik kanpo geratzen diren bi elementu arkitektoniko eta arkeologiko bakarrak Erdi Aroko Elorrioko hiribildua eta Elorrioko hirigune historiko monumentala dira, hurrenez hurren.

Bestalde, hauek dira Planaren eremuan hautemandako ingurumen-arriskuak:

- Lurpeko uren kutsadurarekiko urrakortasun txikia.
- Uholde-arriskua: 100 eta 500 urteko errepikatze-denbora duten uholde-arriskuko orban batzuk baino ez daude HAPOak Pulla errekaen ibai-sistema orokorrerako erreserbatutako eremuan, ipar-ekialdeko muturrean.
Zumelegi ibaian, Plan Partzialaren mugetatik kanpo, lehentasunezko fluxu-eremu bat zehaztu da.
- Lurzoruen higadura txikia.
- Klima-aldaketaren ikuspegitik, EAeko gainerako udalerriekin alderatuta, erreferentziako agertoki eta urte bakoitzerako aztertu diren lau inpaktu-kateetako biren arriskuak nabarmentzen dira Elorrian:
 - EAeko udalerrien % 90 baino gehiago (D9), ibai-uholdeek hiri-ingurunearen gainean duten eraginari dagokionez.
 - EAeko udalerrien % 80 baino gehiago (D8), lehorraldiek jarduera ekonomikoen (nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera) gainean duten eraginari dagokionez.

Arrisku teknologikoei eta beste arrisku batzuei dagokienez:

- Arrisku geoteknikoei dagokienez, eremuaren eraikuntza-baldintzak aldekoak dira, Aidasu eta Zumelegi errekekin bat datorren mugaren kasuan salbu, uholde- eta istiltze-arazoengatik, baita iparraldeko eremuan ere, Pulla errekaen zatian, istiltze-arriskuengatik.
- Ez dago lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioko lursailik. Hala ere, Planaren eremuaren ekialdeko muturrean, eremu horretan kokatutako industriekin bat etorriz, kutsatuta egon daitezkeen lurzati gisa identifikatutako bi ditu mugakide: 48032-00028 eta 48032-00032.
- S-7.1 PULLA-AZKARRETA SEKTOREA —ETORKIZUNEN INDUSTRI gisa hartzen da Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) zonakatze akustikoan— industria-erabilerako eremuan dago. Beraz, eremu akustiko horretan bete beharreko kalitate akustikoko helburuak eta inguruko eremu akustikoetan bete beharreko foku akustiko berrien immisio-mugak 213/2012 Dekretuak industria-erabilerako eremu akustikoetarako ezarritakoak izango dira (gaur egun behar bezala betetzen dira).
- Arrisku teknologikoak kontuan hartuta, eremuaren iparraldean dagoen BI-3331 errepideak oso arrisku txikia du salgai arriskutsuen garraioagatik; era berean, ez da arrisku esanguratsurik identifikatu (substantzia arriskutsuak tarteko diren istripu larriengatik) Seveso III Zuzentarauaren eraginpeko enpresetatik gertu egoteagatik.

4. Jarduketak egiteko egokiak ez diren eremuak

Natura-ingurunea babestu, zaindu eta hobetzeko, ekosistemen eta beren zerbitzuen galera eta erresilientziaren murrizketa mugatuz, etorkizuneko jarduketak hartuko dituen lurzorua antolamenduak kontuan hartu behar ditu planaren eremuan dagoen kapital naturala eta kultura-ondarea ingurumen-arriskuak dituzten guneak erabakiak hartzeko prozedura osoan zehar. Hau da, ingurumen-eremu garrantzizkotzat hartuko ditu, eta desegokiak izango dira jarduketak hartzeko, baldin eta jarduketok ingurune fisikoa zuzenean eraldatzen badute, eta elementu nabarmen horientzako arriskutsuak izan badaitezke edo horietan hauteman diren arriskuak larriagotu baditzakete.

Kasu berezi honetan, Planaren eraginpean zuzenean dagoen eremua ez da ingurumen- eta/edo kultura-balio arriskutsuen eremua, hau da, Natura 2000 Sareko natura-espazio babestua, ezta inbentarioan sartutako gune babestua edo natura interesekoa ere. Ez da, halaber, EAEko Korridore Ekologikoen Sareko egiturazko elementua, eta ez du katalogatutako paisaia-baliorik edo kultura-ondarearen gaineko erasanik.

Era berean, printzipioz, desegokiak izan daitezke uholde-arriskuko, akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun handiko zein oso handiko edo hots-kutsadurak eragindako eremuetako garapen berriak.

Planaren eremuak 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremu batekin egiten du muga ipar-mendebaldean, eta hori kontuan hartu beharko litzateke eremua garatzeko orduan. Gainera, eremuaren ipar-mendebaldeak eta hego-ekialdeak Jabari Publiko Hidraulikoaren babes-eremuei eragiten die, Pulla eta Aidazu erreken zaintza-eremua okupatzen baitute. Beraz, Planetik eratorritako jarduketek kontuan hartu beharko dute Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren araudian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiek eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren E.2 apartatuan jasota dagoen uholdeen babesari buruzko berariazko araudian xedatutakoa, baita Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 14.bis artikuluan jasotakoa ere. Era berean, Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena lortu beharko da.

Kalitate akustikoko helburuak betetzen ez dituzten edo etorkizunean beteko ez dituzten garapen-eremuak ere desegokiak izan daitezke.

Horregatik, egiaztatu behar da zarata-foku berrien immisioaren muga-balioak betetzen direla aldameneko bizitegi-erabilerako lurzoria nagusi den lurraldeko eremu/sektoreetan, baita eremu akustikoetan kokatuta ez dauden bizitegi-erabilerako eraikinetan ere. Horretarako, zarata iristen den eraikuntza leihoduneko fatxada nahiz garaiera guztietan egingo dira neurketak, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 13/2012 Dekretuarekin eta aplikatu beharreko gainerako araudiarekin bat etorritz.

Horrenbestez, garapen berriak hartzeko, naturaren, kulturaren eta ingurumen- eta teknologia-arriskuaren ikuspegitik aipagarriak ez diren guneak lehenetsi beharko dira, hala nola lurzoru antropizatuak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arriskuguneak, eremu hauskor edo urrakorrak eta abar ebaluatzeak aukera emango duena.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko izapidea amaitu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzaren, Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritzaren eta Ingurumen Zuzendaritzaren erantzunak eta Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren erantzunak jaso ditugu.

Segidan, jasotako txostenetan adierazitako ingurumen-alderdirik nabarmenenak laburtuta daude:

Natura-ondareari dagokionez

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenean honako ohartarazpen hauek jasotzen dira:

- Landarediaren eta habitaten gaineko eragina
Ingurumen-azterketa estrategikoak berriz landareztatzeko proiektu bat izan behar du, eta, bertan, landareztatu beharreko azalerak, horretarako erabili behar diren espezieak eta landatzeko esparruak identifikatu behar dira, besteak beste.
Espezie autoktonoak erabiltzea gomendatzen da, baita lorategietan ere, eta horiek diseinatzean kontuan hartu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeako eskuliburuan» jasotako gomendio eta neurriak.
- Faunaren gaineko eragina
Ingurumen-azterketa estrategikoak behar bezala deskribatu behar du bidegurutzea nola egingo den Pulla errekaen gainetik, eta errekaen ertzak lehengoratzeko aukera planteatu behar du, natura-ingeniariatzako teknikan oinarrituz.
Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren bisoi europarraren kudeaketa-plana kudeatzen duen organoari txostena eskatu beharko zaio, hala badagokio, egokitzen jotzen dituen baldintzak ezartzeko.
- Paisaia izango duen eragina
Ingurumen-azterketa estrategikoak sektorearen garapena ingurumenaren eta paisaiaren aldetik integratzeko neurriak zehaztu behar ditu, eta, horretarako, landare-espezie autoktonoak erabili behar dira, jakina.

Bestalde, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak adierazi du Planean proposatuko diren jarduketek koherenteak izan behar dutela Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 29.3 artikuluekin. Haren arabera, «saihestu egingo dute lurzorua zigilatzea edo artifizialtzea, eta abandonatutako lursailen birgaitzea zein degradatuak lehengoratzeko sustatuko da».

Era berean, azpimarratu du natura berrezartzeko buruzko 2024/1991 (EB) Erregelamendua, 2024ko ekainaren 24koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, ezinbestean aplikatu behar dela Batasunaren intereseko Planean dauden «6510. Altitude txikiko sega-belardi elkorrak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)» Batasunaren intereseko habitatetan; era berean, nabarmendu du Planak bat etorri beharko duela Lehengoratzeko Plan Nazionalarekin.

Landa-lurzoruari dagokionez:

Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiaren txostenaren arabera, eremuaren zatirik handiena urbanizagarria bada ere, eremuaren hegoaldeko, ekialdeko eta mendebaldeko muturrek nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko kategoria (balio estrategiko handia eta trantsizioko landa-paisaia) duten lurzoruetan dute eragina. Ahal den neurrian, iradokitzen dute ortuak gaur egun garatzen diren lekuen inguruan mantendu, berritu edo birkokatu daitezela, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-lurren erabilera kontserbatu eta sustatzeko buruzko urriaren 2ko 193/2012 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Azkenik, txostenak gogorarazten du balio agrologiko handiko lurzoruan eragiten duen administrazio-egintza orok konpentsazio-proposamen bat jaso behar duela nekazaritza-lurrak galtzearen ondorioz, hori guztia urriaren 2ko 193/2012 Dekretu horren 5. artikuluekin bat etorriz.

Gainazaleko ur-masei dagokienez:

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak argitu duenez, Plan Hidrologikoak ES060MAR002740 kodea duen

«Elorrio I ibaia» ur-masa aldatu horretan identifikatzen dituen presio esanguratsuen artean daude hiri- eta industria-isurketak eta saneamendu-sarearen gainezkatzeak. Beraz, ingurumen-helburuak lortzeko neurriek (masan potentzial ekologiko ona lortzea) saneamendu-sistemen gainezkatzeak kontrolatzea eta murriztea eta hiri-bilbeko isurketak saneamendu-sare orokorrera konektatzea izan behar dute ardatz.

Mugikortasunari dagokionez:

Berrikuntzaren eta Bide Kudeaketaren Zuzendaritza Nagusiaren txostenak ohartarazten du Plan Partzialaren dokumentuak eguneratu egin behar duela Bizkaiko errepideei buruzko araudiaren erreferentzia (5/2021 Foru araua, urriaren 20koa, Bizkaiko errepideei buruzkoa).

Kultura-ondareari dagokionez:

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du, dokumentazioa berrikusi ondoren, Planaren esparruan ez dela eraginik hauteman kultura-ondarean.

Kontratuen prebentzioari eta kudeaketari dagokionez:

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren arabera, Planaren araudiak lur- eta arroka-soberakinak berrerabiltzearen aukera sustatu behar du, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planean aurreikusitako helburuekin bat etorritz, obran bertan edo APM/1007/2017 Aginduaren 2.4 artikuluan aurreikusitako balorizazio-eragiketetan (APM/1007/2017 Agindua, urriaren 10ekoa, Hondeatutako material naturalak betelantetan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorrei buruzkoa).

Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedurari dagokionez:

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ezartzen duenez, Plan Partzialaren araudiak nahitaez jaso behar du etorkizuneko urbanizazio-proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura bete behar duela, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera (Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legearen IIE eranskineko E7 taldeko 7.a. epigrafea).

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Horren arabera, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
 - 1.1 Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2 Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3 Plangintza-alternatibak
2. Ingurumen-ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1 Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2 Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak alderdi hauetan sakondu behar duela, jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1 Planaren deskribapena

Deskribatu egin beharko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeinek dakarten ingurumenean ondorio kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1 Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat barne hartuko du Azterketak. Gainera, labur-labur azaldu beharko da nola hartu diren kontuan, Plana egitean, ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak, txosten honetako 2. apartatuan jasotakoak.

b. Hierarkian plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespren-egintzaren aipamena eta data aurkeztuko dira, eta plan edo programa horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin den ala ez zehaztuko da.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, besteak beste, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
128/2019 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. I. eranskina. Aplikatzekoa den araudia.
- Durangoko eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- Elorrioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027); bereziki, uholde-arriskuko eremuei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana.
- Baso eta Nekazaritzako Lurraldearen Arloko Plana.
- 5/2021 Foru Araua, urriaren 20koa, Bizkaiko errepideei buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa.
- Ekainaren 25eko 4/2015 Legea, lurzorua kutsadura prebenitzeko eta zuzentzekoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.
- Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua. Horren bidez, Bisoï Europarraren, *Mustela*

Iltreola (Linnaeus, 1761), Kudeaketa Plana onetsi da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea den eta babesteko neurri bereziak behar diren aldetik.

- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketarena eta Trantsizio Energetikoarena.

6.1.2 Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu beharko du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat egingo du Azterketak, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenen ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Xehetasunez deskribatuko da indarreko plangintzan definitutako egungo egoera, Planak sartzen dituen proposamen berriekin alderatuz: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea, erabilerak aldatzea eta abar.

Indarrean dagoen plangintzaren aldean, antolamendua aldatzen den esparru/sektore guztietarako, datu hauek eman beharko dira:

- Planoan kokatzea.
- Azalera.
- Indarrean dagoen plangintzaren eta planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea edo beste ekintza batzuk.
- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da, eta, horretarako, adierazpen kartografiko batean oinarritzea gomendatzen da, islatutako informaziora egokitutako eskala batean.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketaren ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Azterketak identifikatu beharko ditu ingurumen-ebaluazio estrategikoa behar duten plan xehatuei dagozkien arloak eta proposamenak. Era berean, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak — Planaren esparruan egindakoak — identifikatuko ditu; ildo horretan, garapen-baldintzatzaileak ezarriko dira, bai eta haiek garatzeko unean eraginak minimizatzeko jarraibideak ere.

c. Ingurumenen eragina izan dezaketen planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako Planaren ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, haren erreferentzia behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna edota -proiektu horien ingurumen-ebaluazioa egin beharko dela, hala badagokie.

e. Nolanahi ere, plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan bildutako informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraren erabilera adierazi beharko da, bai eta ingurumen-ondorio nabarmenak sortzeko arriskua duten Planaren aurreikuspen eta

jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, eta, behintzat, honako hauek jasoko ditu: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, PDF (georreferentziatuta) eta *shape* formatuetan, berrikuspen-lana errazteko.

6.1.3 Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan beharko dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba edo ez esku hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-esparruaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-aukerak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako aukera.

d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan jasoko dira.

6.2 Ingurumen-ezaugarrien zehaztapena

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren uneko egoera (alderdi nagusiak azalduta) Planaren eragin-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai haien elkarreraginaren ikuspuntutik, eta ingurumenaren uneko egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko eremutzat hartuko da, hura kokatzen den eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, baina soilik Planaren ekintzek ingurumen-ondorio nabarmenak izan ditzaketen guneeetan.

Ingurunearen kalitateari buruzko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea, egilea eta, hala badagokio, zer estekatatik sar daitekeen lana osorik kontsultatzeko gunera.

Azterketak eskala egokiko planoak izango ditu, ingurunearen aldagaiak islatuta.

6.2.1 Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, landaredia, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, flora eta fauna autoktonoak, geologia-intereseko lekuak, eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira; halaber, interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak — Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua dutenak — emango dira.

Horri dagokionez, xehetasunez deskribatu beharko da zer landarediri eragingo dion, bereziki zuhaitz-masa autoktonoak eta intereseko landareak dituzten eremuetan. Landaredi mota bakoitzerako, honako hauek zehaztuko dira: azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionalitate ekologikoa. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspuntutik interesekoa den elementurik badagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso diren datu guztiak emango dira, hala nola lurpeko uren urrakortasunari, uholde-arriskuari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arriskuri buruzkoak.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituzten lurzoruak eta kutsagarriak izan daitezkeen iturriak identifikatuko dira, eta natura-baliabideen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki, urarena.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egoteko arriskua duten eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Antzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, urrakortasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes ematen dizkion arau-xedapenaren aipamena ere aurkeztuko da.

f. Apartatu honetan, gainera, beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen (ura, energia eta abar) kontsumoari lotutako beharrak, jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria, etab.

6.2.2 Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, bai eta eragina jasan dezaketen alderdietan ere, Planean jasota dauden aldaketen ondorioz sortuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenak haietara egokitzeke.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak eta eremu hauskor edo urrakorrak ebaluatzeke. Apartatu hau idazteko, txosten honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

6.3 Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu honetan, identifikatu, ezaugarritu eta baloratuko da Planean jasotako ekintzek zer ondorio izan

ditzaketen 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan. Planaren ondorioak identifikatu eta haien ezaugarriak deskribatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen bertan aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen jakiteko ere.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta berariaz aipatuko da atal horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu Planak sartutako jarduketa-proposamen berriei eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragiten dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketak eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren metatze- eta sinergia-ondorioak.

Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean eragin kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako planaren ondore bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Besteak beste, afekzio hauek ebaluatuko dira bereziki:

- Natura-ondorean izan dezakeen eragina ebaluatuko da:
Ingurumen-azterketa estrategikoak behar bezala deskribatu beharko du nola egingo den Pulla errekararen gaineko bidegurutzea.
Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren bisoi europarraren kudeaketa-plana kudeatzen duen organoari txostena eskatu beharko zaio, hala badagokio, egokitzat jotzen dituen baldintzak ezartzeko.
- Ibai-ibilguetan eta jabari publiko hidraulikoaren babes-zortasuneko eremuetan izan dezakeen eragina ebaluatuko da, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da. Bereziki, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean adierazitakoa bete beharko da, aurreikusitako jarduketek ibaiaren ibilguarekiko gauzatu behar dituzten ubide-atzeratzeei dagokienez.
- Planak uholde-arriskuan dituen ondorioak aztertuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak, eta behar bezala justifikatuko du indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia betetzen dela erabilerei ezarritako mugei dagokienez, fluxu iraunkorreko alderdietan eta uholde-arriskuko zaintza-eremuetan.
- Era berean, aztertu beharko da ea Plana bateragarria den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Uholde Arriskua Kudeatzeko 2022-2027 Planarekin.
- Lurzoruaren okupazioak eta artifizializazioak eragindako inpaktua ebaluatuko da, eta azpimarratuko dira gaur egun landa-izaerakoak eta izaera naturalekoak diren lurzoruetan finkatuko diren proposamenak, bai eta balio agrologiko handiko lurzoruetan finkatutakoak ere.
- Indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozko erasanak.
- Era berean, Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landaredia autoktonoarengan dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratuko dira.
- Aztertuko da Planak zer inpaktu izan dezakeen eremuan identifikatutako fauna-talde guztietan, zuzenekoetan zein zeharkakoetan, haien habitatak aldatzeagatik. Zehazki, justifikatu beharko da Plana bat datorrela bisoi europarraren kudeaketa-planaren aurreikusitakoarekin.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan beteko diren Kalitate Akustikoko Helburuak (KAH) eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako zarata-fokuen immisio-mugak.

Azkenik, Plan Partzialaren araudiak etorkizuneko urbanizazio-proiektuaren gaineko eraginen ebaluazioa jaso beharko du, eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioren prozedura bete beharko duela, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera (EAEko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legearen IIE eranskineko E7 taldeko 7.a. epigrafea).

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ondorioen neurria eta irismen espaziala.
- Eragina jasateko arriskuan dagoen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik badagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik badagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi ditzakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, neurgarriak diren datuak erabiliko dira; hain zuzen, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzeak deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoeran eragingo dituen aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio horiek iragartzean zer ziurgabetasun-maila dagoen adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen zehazteko ahalegina egingo da.

d. Adieraziko da hautemandako efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Horrela deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4 Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu honetan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi diren Azterketaren 6.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko, eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-ondorio garrantzitsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta geroago exekutatzearen ondorioz. Helburu hauek izango dituzte: baliabide naturalak, natura- eta kultura-ondarea babestea; natura-arriskuak prebenitzea; eta atzemandako ingurumen-arazoaren aurrean hobekuntzak egitea eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 apartatuan identifikatutako ondorioekin —prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin— lotuko dira. Bereziki, neurri hauek zehaztuko dira, besteak beste, zeinak nahitaez aplikatu beharko baitira Plana onartzearen ondorioz garatzen diren plan edo proiektuetan:

- Kultura-ondarearen arloko neurriak:
Ahal den neurrian, lurzorua ez zigilatzen edo artifizializatzen saiatuko gara, eta utzita dauden lursailak birgaitzen eta degradatuta daudenak lehengoratzen erraztu beharko da, azaroaren 25eko

9/2021 Legearen 29.3 artikuluan ezartzen den Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko printzipioaren arabera.

- Landarediaren eta habitaten arloetako neurriak:
Ingurumen-azterketa estrategikoak berriz landareztatzeko proiektu bat izan beharko du, eta, bertan, landareztatu beharreko azalerak, horretarako erabili behar diren espezieak eta landatzeko esparruak identifikatu behar dira, besteak beste.
Espezie autoktonoak erabiltzea gomendatzen da, baita lorategietan ere, eta horiek diseinatzean kontuan hartu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan» jasotako gomendio eta neurriak.
- Faunaren arloko neurriak:
Ingurumen-azterketa estrategikoak Pulla errekararen ertzak lehengoratzeko planteatu beharko du, natura-ingeniaritzako teknikak oinarritzat hartuta.
- Paisaiaren arloko neurriak:
Ingurumen-azterketa estrategikoak sektorearen garapena ingurumenaren eta paisaiaren aldetik integratzeko neurriak zehaztu beharko ditu, eta, horretarako, landare-espezie autoktonoak erabili behar dira.
- Landa-lurzorua arloko neurriak:
Ahal izanez gero, ortuak gaur egun garatzen diren lekuen inguruan mantendu, berritu edo birkokatu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-lurren erabilera kontserbatu eta sustatzeari buruzko urriaren 2ko 193/2012 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.
Gainera, balio agrologiko handiko lurzoruan eragiten duen administrazio-egintza orok konpentsazio-proposamen bat jaso beharko du nekazaritza-lurra galtzearen ondorioz, hori guztia urriaren 2ko 193/2012 Dekretu horren 5. artikuluekin bat etorriz.
- Lur gaineko uren arloko neurriak:
«Elorrio ibaia I» ur-masa aldatuaren ingurumen-helburuak lortzeko neurriak (ES060MAR002740 kodea) —masan potentzial ekologiko ona lortzea— saneamendu-sistemen gainezkatzeak kontrolatu eta murriztu beharko dituzte, eta hiri-bilbeko isurketak saneamendu-sare orokorrera konektatu beharko dituzte.
- Hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko neurriak:
Planak lur- eta arroka-soberakinak berrerabiltzearen aukera sustatu behar du, Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Planean aurreikusitako helburuekin bat etorriz, obran bertan edo APM/1007/2017 Aginduaren 2.4 artikuluan aurreikusitako balorizazio-eragiketetan (APM/1007/2017 Agindua, urriaren 10ekoa, Hondatutako material naturalak betelanetan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorrei buruzkoa).
- Uholde-arriskuari dagokionez:
Planak kontuan hartu beharko du Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Plan Hidrologikoaren araudian eta EAEko ibaiak eta errekek antolatzen dituzten Lurralde Plan Sektorialeko E.2 epigrafean jasota dagoen uholdeen babesari buruzko berariazko araudian xedatutakoa, bai eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 14.bis artikulua ere. Era berean, Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena izan beharko du.
- Oro har, proposatzen diren garapenek bermatu beharko dute betetzen dela EAEko Ibaiak eta Errekak

Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan (2022-2027 zikloari dagokiona) ezarritakoa. Hartara, saihestu beharko dira bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-igarobidearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta sustatuko da, ahal denean, haiek lehengoratzeko, biziberritzea eta hobetzea.

- Garapen berriek behar-beharrezkoa diren azaleretara mugatu beharko dituzte zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dituzte (zoladura iragazkorrak, andelak edo ekaitzetarako gailuak eta abarrak); lehendik zegoen egoeraren aldean jariatzea handitzen bada, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko dute horien bitartez. Sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusi beharko dute, halaber.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak xehetasun-maila nahikoarekin identifikatuko ditu obren fasean hartu beharreko neurriak, lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea murriztea eragozteko.
- Lehentasuna emango zaio hirigintza-garapen berriak zuhaitz-masa autoktonorik edo lehentasunezko habitatik ez duten eremuetan kokatzeari. Halakorik egonez gero, espazio libreetara bideratzea lehenetsiko da.
- Intereseko landaredia kenduz gero (nolanahi ere, behar bezala justifikatu beharko da), konpentsazio-neurriak hartuko dira, eragindako eremuaren azalera berdina edo handiagoa duen eremu degradatu baten ingurumen-lehengoratzeko egiteko. Ezinbestekoa da gertatzen diren natura-kapitalaren galerak konpentsatzea eta ziurtatzea ez dagoela natura-ondarearen galera garbirik (zero balantzea edo, hala badagokio, aurreikusitako lehengoratzearen ondoren, bai eta positiboa ere).
- Plangintza xehatua garatzeko, eremua lehengoratzeko plan bat idatzi eta gauzatu beharko da, eta honako irizpide hauen arabera idatziko da:
 - o Zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen multzo eta eraketa linealak ezartzeko ahalegina egingo da, ahal dela horiek inguruan dagoen landaredia naturalarekin lotuz eta habitat naturalizatu bat birsortuz.
 - o Obren fasean intereseko landarediari ez eragiteko neurriak hartuko dira (balizak jartzea, etab.).
 - o Obrek aldi baterako eragindako gainazalak eta esku-hartzerik egin gabeko espazio libreetako eremuak birlandatuko dira, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta.
 - o Planaren eremuan egon daitezkeen flora aloktono inbaditzailearen aleak ezabatzeko jarraibideak eta zehaztapenak jasoko dira, eta eremuan eta ingurunean ez hedatzeko neurri egokiak hartuko dira. Horren harira, protokolo bat idatziko da inbasio-prozesuak sor ditzaketen landare-espezie aloktonoak kontrolatzeko eta desagerrarazteko (adibidez, *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, etab.).
 - o Irizpideak zehaztuko dira Planaren ondoriozko hirigintza-garapenak paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan» jasotako gomendio eta neurriak.

Integrazio-neurrien artean, espezie autoktonoak dituzten landare-pantailak eta lorategi-

diseinu tipikoak ez diren soluzioak erabiltzea hartuko da kontuan, ahalik eta espazio naturalizatuenak sortuz. Landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana*, eta espezie inbaditzaileak desagerrarazteko eta ugal daitezen ekiditeko neurriak hartuko dira.

- Neurri gehigarriak, nekazaritza-jarduera sustatzeko eta hobetzeko, balio estrategiko handiko lurzorua galera orekatzeko, narriatutako eremuak berroneratuz, azpiegiturak hobetuz eta/edo Nekazaritza Lurren Funtzari lurzoru publikoak utziz.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaian indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Azkenik, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketan egon daitezkeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak. Xede horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21 lan-koadernoak» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua Klima-aldaketa arintzeko eta Klima-aldaketara egokitzeko». Era berean, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legean hirigintza-plangintzarako adierazten diren neurriak bultzatuko dira.
- Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, Plana garatzeko proiektuak diseinatzeko, klima-aldaketaren aurrean pixkanaka eta erresilientziaz egokitzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira kontuan. Adibidez, klima-aldaketara egokitzeko eta «uharte termikoaren efektua» gutxitzeko asmoz, jarduketak ahalbidetzen badu, hiri-babesleku klimatiko gisa funtzionatuko duten itzalguneak sortu eta ingurunea naturalizatzeko prozesuak sustatuko dira.

c. Adieraziko da proposatutako neurriak planaren zein zatitan txertatu diren, eta espresuki adieraziko da planaren zein dokumentu teknikotan jaso diren.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5 Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, hartan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen zein Plana martxan jarri aurreko ingurumen-arazoen bilakaera zaintzea.

- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere bai.
- Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den zehaztea.

b. Jarraipen-neurriak identifikatuko dira, eta neurri horiek Azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriei jarraitu beharko diete.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, bai eta zer proposamen zehatz egiten den ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6 Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatu diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean ondorio nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio nabarmen horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori gauzatzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7 Laburpen ez teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak izan beharko ditu.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondoreei dagokienez, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du programaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez gutxienez.

Era berean, organo substantiboak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutako epeen ondorioetarako, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eragindako administrazio publikoen eta interesdunen eskura jarriko ditu planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Hona hemen egindako kontsulten zerrenda:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetza. Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- URA, Uraren Euskal Agentzia.
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia.
- Kulturako Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza. Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saila.
- Ekologistak Martxan.
- Eguzki. Eguzkizaleak Aisialdirako Elkartea.
- Áncora Elkartea, Kultura Ondarearen Kontserbaziokoa.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-dokumentura nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, behar bezala bete beharko dira Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentua_k-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrenena.– Ebazpen hau Elorrioko Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 17a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Javier Aguirre Orcajo